

## Alhondiga Bilbao zentroak zenbait ikastaro antolatu ditu literaturaren korronte berrietan sakontzeko

**Lehenengo ikastaroa urtarrilaren 17an eta 18an izango da, eta irudien hizkuntza izango du aztergai nagusi**

Alhondiga Bilbao zentroak, Germán Sánchez Ruipérez Fundazioaren eskutik eta ALDEEren (Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Elkarte) lankidetzarekin, ekimen berri bat antolatu du, profesionalen eta ikasten jarraitu nahi duten pertsonen artean ezagutzaren trukea ahalbidetzeko eta ezagutzak amankomunean jartzeko asmoz. Horren haritik, programazioa literaturaren korronte berriak aztertzeraz eta korronte horietan sakontzeraz egongo da zuzenduta.

Ikastaroak literatura irakasleei, udal eta eskola liburutegietako profesionalei eta gurasoen elkarteei daude zuzenduta batez ere, eta "Irakurketa eta irakurleak mende berrirako" programaren barruan daude. Urtarrilean hasiko dira, ikus-entzunezkoen hizkuntzari buruzko "Irudiak irakurri: prentsa, telebista, zinea eta beste pantaila batzuk" ikastaroarekin.

Ikastaro teoriko eta praktikoa izango da. Bertan, irudiaren hizkuntzari, irudien modalitate desberdinei (irudi finkoa eta irudia mugimenduan) eta irudien adierazpen-bide desberdinei buruzko gogoetak, adibideak eta ariketa praktikoa landuko dira. Halaber, kultura tradizionalaren eta gaur egun bizi dugun gizarte mediatikoko ikus-entzunezkoen kulturaren ikuspegiak alderatuko dira.

Ikastaroa Bilboko Merkataritza Ganberaren egoitzan izango da, urtarrilaren 17an eta 18an, zentro bilbotarreko iturriek prentsa ohar bidez adierazi dutenez. Ikastaro hauetan parte hartu nahi dutenek, Alhondiga Bilbaoren web-orrian ([www.alhondigabilbao.com](http://www.alhondigabilbao.com)) aurkituko duten inskripzio-orria betez eman ahal izango dute izena. Lehenengo ikastaroan izena emateko epea urtarrilaren 11n amaituko da.

### **BESTE IKASTAROAK**

Bestalde, otsailaren 14 eta 15erako, Alhondiga Bilbaok ikastaro bat antolatu du gazteek eta liburutegiek duten harremanari buruz sakontzeko. Ikastaroaren izenburua da "Gazteak eta liburutegiak: ezusteko harreman bat baino zerbait gehiago".

Ikastaro honetan, liburutegiaren eta nerabeen arteko harremana ezartzen eta finkatzen lagundu duten lan-ildo, jarduera eta materialen berri emango da. Apirilaren 3an eta 4an, "Irakurlea haur eta gazte literaturaren bitartez eraikitzea" gaiari buruzko ikastaroa izango da. Ikastaro honetan haur eta gazte literaturak irakurketa-ohituren sorkuntzan eta heldutasunean daukan zeregina aztertuko da, batetik, gertatzen ari diren fenomenoei kasu eginez (titulu izarrak, liburu-jokoak, irudiaren irakurketa), eta bestetik, lan mota desberdinen literatur kalitatea modu egokian baloratzeko irizpideak ezarriz.

Ekimen hau 'hótik at' (Alhondiga Bilbaoren eraikinetik kanpo) programaren barruan dago, izan ere, programa horren bitartez, jarduerak antolatuko baitira hiriko zenbait espaziotan. Alhondiga Bilbaok ez ditu 2009ra arte espazio guztiak martxan izango, baina, bien bitartean, 'hótik at' programak erantzuna emango die herritarrek ahalik eta arinen zentroaz gozatzeko azaltzen dituzten asmoei.